

han-hemen

John F. Kennedyk II. Mundu Gerran gidatu zuen ontzia aurkitu dute Salomon irletan

Robert Ballardek, 1985ean *Titanic* ontzia aurkitu zuen gizonak, II. Mundu Gerran John F. Kennedyk gidatu zuen torpedo jaurtitzaile ontzia aurkitu du Salomon uharteetan. 109 torpedo jaurtitzailea Japoniako Armadako ontzi batek hondoratu zuen, 1943ko abuztuaren lehenean. Gertaera hori zinemara eraman zuen Leslie Marinson zuzendariak *PT-109* filmean, eta Kennedy teniente gaztearen rola Cliff Robertsonek bete zuen. Itxura guztien arabera, Japoniako Armadako ontziak gainetik pasatu zuen Kennedyren torpedo jaurtitzaile txikia.

Austriako etorkin batek 23 milioi euro irabazi ditu Las Vegasen

Johanna Heundl 74 urteko Austriako emakumeak era ezin hobean ospatu zuen bere urtebetzea Las Vegasen (AEB) kasinobatean. Adindutako emakumeak 3 euro sartu zituen txanpon makina batean, eta 23 milioi euroko saria atera zuen, Las Vegasen kasinok eman duten hirugarren sari handiena. «Uste nuen 23.000 euroko saria zela, ez nuen sekula pentsatu 23 milioi izango zirenik», esan zuen Johanna Heundlek.

Soraya Esfandiaryren ondasunak enkante batean saltzen ari dira

Begi goiblekiko printzesa gisa ezaguna izan zen

**Tenerifetik Kanaria Handira igeri eginez**

David Meca igerilariak lehendik ere eginak ditu hainbat balentria betiere igeriketari dagokionez.

Orain, berriz, Tenerife uhartetik Kanaria handira igeri eginez joango da, eta horretarako kaiola bat erabiliko du, haren barruan marrazoen aurkako babesa izango duelako.

**Zakurrak ere dantzari apartak izan daitezkeela erakutsi du 'Jake'-k**

Argazkian ikusten den zakurra Jake da. Lynette Canfield da bere jabea, eta biak *Staying live* piezarekin dantzatu zuten Michiganan (AEB) antolatu zuten zakurjaialdian.

**Esso multinazionalari logotipoa aldatu diote**

Greenpeace talde ekologistako kide bati, nonbait, Esso multinazionalaren logotipoak enpresa horren izaera ez zuela behar bezala erakusten bururatu zitzaion, eta bi eseei marra bat egin zien goitik behera, eta dolarren ikurrak marraztu.

Irango xah izanaren bigarren emazte Soraya Esfandiary. Iazko urrian zendu zen Esfandiary Parisen, 69 urte zituela. Bere ondasunak, -22,37 kilateko diamante bat, Rolls Royce gorri bat eta Irango margolanak, besteak beste, enkante batean jarri dituzte salgai atzodanik. Adituek uste dute ondasunen truke hiru milioi euro bilduko dituztela.

Filipinetako irakasle batek 132.000 dolar itzuli ditu bere soldatetik

Filipinetako Marilyn Bongad irakasleak 131.815 dolar itzuli zituzkion herrialde hartako Hezkuntza Ministerioari. Irakasleak 132 dolar irabazten ditu hilero, baina hori jaso beharrean nahigabe 132.000 dolarreko soldata sartu zioten bankuko bere zenbakian. «Bere jarrera onagatik sari bat emango diogu», iragarri zuen Hezkuntza ministro Raul Rocok. Telebistako kate batean Hezkuntza Ministerioa ustelkeriarekin lotzen zuen erreportai bat eskaini ondoren iritsi da bitxikeria hori.

Sylvester Stallonek bere hirugarren alaba izan du

Joan den larunbatean Sylvester Stalloneren emazte Jennifer Flavin Stallonek alaba bat izan zuen. Horrenbestez, AEBetako aktoreak bere hirugarren alabari ongietorria egin dio. «Ama eta alaba oso ongi daude, eta Stallone oso zoriontsu dago», adierazio zien kazetariei aktorearen bozeramaileak. Stallonek 55 urte ditu, eta Flavinek, 33.

hilberriak

E S K E L A K

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222



XI. urteurrena

**Jon Felix Erezuma
Joan Carles Monteagudo**

1991.ko maiatzak 30ean Lliça d'Munt-en erailak.

**Gaur, 18:30ean Ibarrangeluko
Jon Etxean omenaldia.**

“Bizia maitatzen nuen eta bere edertasunaren alde borroka zelaira joan nintzen (...) Hau da zuentzako nere testamentua (...) Poztasunerako bizi izan naiz eta poztasunaren alde biltzen naiz. Injustizia litzateke doluzko aingeru bat jartzea nire bilobian”

(Julius Fucik)